

ZARAUZKO HONDARTZAKO INGURUMEN POLITIKA

ZARAUZKO UDALAK, herri mailako erakundeak, badaki zein garrantzitsua den Ingurumena errespetatu eta Natur Baliabideak zaintzea. Hori dela eta, bere jarduerak gizartearen Garapen Jasangarriaren alde eginez aurrera eramateko, konpromisoa hartu du Zarauzko hondartzako ingurumenaren portaera hobetzeko, hondartza baita udalerriko bizitzaren berezko protagonista.

ZARAUZKO UDALAK hondartzaren kudeaketari dagokionez, hartu duen konpromisoa ondorengo puntuetan zehazten da:

- Ziurtatu une oro aplika daitezkeen ingurumenaren baldintzak, araututakoak eta jarduerarekin lotutako bestelakoak, betetzen direla.
- Helburuak finkatu eta beharrezkoak diren baliabideak jarri ingurumenarekiko jarrera etengabe hobetzen joateko eta kutsadura saihesteko.
- Ingurumenaren alderdiak Udaletxean egindako lanaren barnean integratu, epe luzerako garrantzizko faktoretzat hartuz Udalaren hobekuntza orokorra lortzeko, eta bere jardueren ingurumen-inpaktoak gutxiagotuz.
- Natur baliabideak aurreztera joan, egindako prozesuetan kalitatea bilatuz: eko-eraginkortasun metodoen bidez baliabide horien erabilera gutxiagotuz.
- Erabiltzaileen inplikazio eta parte-hartzea bilatu, sentsibilizazioaren bidez. Hau funtsezkoa izango da hondartzako ingurumenaren portaera hobetzeko.
- Hezkuntza eta sentsibilizazio plan egokiak ezarri, Udal langileak, eta hondartzarekin lotura duten azpikontratatuak, informatuta daudela eta erakundearen politika, helburuak eta betebeharrak ezagutu eta ulertzen dituztela ziurtatzeko. Erantzukizun-printzipioan oinarrituta, langile eta kontratari oro da ingurumen-gaien erantzule, egiten duen jardueraren barnean.

Ingurumen Politika hau ZARAUZKO hondartzako jarduera, produktu eta zerbitzu guztiei aplikatuko zaie, ohiko funtzionamenduan, ezohikoan eta larrialdi egoeretan.

POLÍTICA DE MEDIO AMBIENTE DE LA PLAYA DE ZARAUZ

El AYUNTAMIENTO ZARAUZ, organismo público de ámbito local, es consciente de la importancia de respetar al Medio Ambiente y de la preservación de los Recursos Naturales. Por ello, con el objetivo de llevar a cabo su actividad de forma que se contribuya al Desarrollo Sostenible de la sociedad, se compromete a llevar a cabo la mejora del Comportamiento Medioambiental de la Playa de Zarauz, protagonista natural en la vida del municipio.

El compromiso del AYUNTAMIENTO DE ZARAUZ en lo que respecta a la gestión de su Playa, se concreta en las siguientes líneas de actuación:

- Asegurar el cumplimiento de los requisitos medioambientales reglamentarios y otros relacionados con la actividad, aplicables en todo momento.
- Establecer unos objetivos y dotar de los recursos necesarios, que serán revisados y actualizados periódicamente por la Dirección competente, para asegurar la mejora continua de su comportamiento medioambiental y la prevención de la contaminación.
- Se integrarán los aspectos ambientales dentro del trabajo realizado en el Ayuntamiento tomándolo como un factor importante a largo plazo para la mejora general del Ayuntamiento, reduciendo los impactos ambientales de sus actividades
- Buscar el ahorro de recursos naturales a través de la búsqueda de la calidad en los procesos realizados minimizando el uso de dichos recursos usando métodos de eco-eficiencia
- Buscar la implicación y participación de los usuarios a través de la sensibilización, como elemento clave para la mejora del Comportamiento Ambiental en la playa.
- Establecer los planes de formación y sensibilización apropiados que aseguren que los empleados del Ayuntamiento, así como los subcontratistas relevantes, están informados y entienden la política, los objetivos y obligaciones de la organización, estableciendo el principio de responsabilidad, donde todo empleado y contratista es responsable de los asuntos ambientales como parte de la actividad que realicen.

Esta Política de Medio Ambiente, se aplicará a todas las actividades, productos y servicios de la Playa de ZARAUZ en funcionamiento normal, anormal y en situaciones de emergencia.